



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Egun bat baino gehiago

Martxoaren 7an ospatu zen Liburu Eguna, Erresuma Batuan egindako azterketa baten arabera helduen %31k ez du denbora librean irakurtzen eta zenbaki hori %46ra igozten da 16 eta 24 artekoei erreparatuz gero. Datu horien atzetik dagoena gehiago interesatzen zait; adibidez, zer irakurtzen ari dira helduen bi herenak? Eta, aurreko hilabeteko zutabearen nioen moduan, 16 urteko horiek tabletaren aurrean edukiak ikusten pasatzen duten denborak jango zuen ziurrenik aurretik irakurtzen ematen zuten denbora.

Unescok sortutako kontzeptua da Liburuaren Eguna, liburuak eta irakurzaletasuna bultzatzeko, eta, agidanez, ehun lurralde baino gehiagotan ospatzen da. Jakin dut ere munduko beste hainbat lekutan apirilean egiten dela, baina Erresuma Batuan aldatu egin zutela, antza, Aste Santuarekin eta St George egunarekin ez kointziditzeko. In-

geles hauek horretan ere ezberdinak izan behar.

Egun horretan haurren inguruko aktibitateak sustatzen dira batez ere hemen, eta, horretarako, eskolek libra bateko balioa duen txartel bat ematen diete haurrei eta National Book Token erakundeak aukeratuko hamar liburu-rengandik truka dezakete dendetan. Nerabeentzat ere badago antzeko aukera bat, bi libra eta erdiko balioa duen txartel bat erabiliz. Gainera, irudi ederak ikusten dira kaleetan, eskola askotako haurrak liburuetako pertsonaia kutunenak bezala moztortuta joaten dira-eta.

Horrez gain, Londresen egin diren ekimenen artean bizpahiruk eman ditate atentzioa. Uber garraio zerbitzuak argitaletxe ezagun batekin eta alfabetatzeko erakunde nazionalarekin egindako ekimen bati esker, milaka liburu Londres eta Manchester hirietako Uber taxieta banatu zituzten. Lantegietan dituzten erantzukizunengatik eta bizitza modernoaren presio ezberdinengatik, guraso asko ez dira haurrak ohera-

tzeko garairako etxera iristen. Ekimen honen bidez, haurrei lotara joan aurretik ipuinak irakurtzeak duen garrantzia azpimarratzea da helburua. Ubertan bertan egindako ikerketa baten arabera, Britainia Handiko gurasoen %40k ezin izaten diete haurrei ipuinak irakurri. Londresen, zehazki, hirutik guraso batek zailtasunak izaten ditu etxean egoteko ordu horretan.

XX. mendean Bloomsbury auzoan bizi izan ziren artista, idazle eta intelektualek osatu zuten Bloomsburyko lagun talde entzutetsua, gizarte eduardotarra eskandalizatu zuena eta hainbat ekarpen aurrerakoi eta iraultzaile egin zituen. Haien izenean koktel batzuk sortu dituzte Bloomsbury Club deitzen den taberna batean; hala, “Virginia Woolf”, “TS Elliot”, “Roald Dahl” izeneko koktelak aurki daitezke menuan. Liburuaren egunean tabernara joan zirenek, liburu batekin “ordaindu” zezaketen koktela eta liburuok auzoko kariatatzeko liburu denda batean amaituko dute.

Azkenik, hainbat egitasmok, emakumearen irudia eta genero berdintasunaren testuingurua erabili dituzte irakurzaletasuna bultzatu eta batez ere emakume idazleak plazaratzeko aukera baliatzeko.

Egun bateko gauzan ez gelditzea da espero dezakegun bakarra. Hor daude antzeko beste hainbat egun: Emakumearen Eguna, Pobreziaren Eguna, Gerran Hildakoen Eguna, Langileen Eguna, eta abar luze bat. Finean, gure bizitza prefabrikatu hauek horretan bihurtzeko arriskuan daude: ekimen solidarioak egun bakarretan aldarrikatuz ematen dugun sekuentzia berekoiak, iraultzaile moztorreo egun horretan ganbaratik atera baina urteko gainerako egun guztietan egunerokotasunaren azkartasunak funtsa jaten digularik. •



Erresuma Batuan martxoaren 7an ospatu zen Liburuaren Eguna.